



×

GIZARTE
ZIBILAREN
II. TOPAKETA

**ETORKIZUN
KOHERENTE
BAT**

**GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
ALIAZTAK**

*Euskadin 2030 Agenda bultzatuz,
eragile anitzeko lankidetzaren eta
politiken koherentziaren bidez*

+

II ENCUENTRO
SOCIEDAD
CIVIL

**UN
FUTURO
COHERENTE**

**ALIANZAS PARA
EL DESARROLLO
SOSTENIBLE**

*Impulsando la Agenda 2030 en Euskadi
mediante la colaboración multiagente y
la coherencia de políticas*

Gizarte Zibilaren II. topaketa

Etorkizun koherentea: Garapen iraunkorrerarako Aliantzak

**Euskadin 2030 Agenda bultzatuz, eragile anitzeko
lankidetzaren eta politiken koherentziaren bidez**

#EtorkizunaHorretanDoakigu

#NosVaElFuturoEnEllo

Bilborock, 2025eko otsailaren 4a

09:00etatik 15:00etara




Sarrera


Gure gizartea eraldaketa sakona izaten ari da; erronka berriei eta ezagunei aurre egin behar die, eta erronkok beti daude elkarrekin lotuta. Erronken konplexutasunak modu kolektiboan eta ikuspegi askotatik hausnartzera garamatza, eta 2030 Agendaren printzipioetan oinarritutako eredu-aldaketa bat bultzatzen dugu. Aldaketa horren ardatz nagusiak giza eskubideak, justizia globala, berdintasuna eta jasangarritasuna izan behar dira.

Helburua hori izanik, **Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentzian (GJPK)** oinarritutako jardunaldi bat antolatzea proposatzen dugu, justizia globala, bakea eta giza eskubideen errespetua sustatzeko funtsezko esparru gisa. Eragile anitzeko hausnarketa- eta elkarrizketa-gune horretan parte hartu ahal izango dute gizarte zibil antolatuan giltzarriak diren eragileek (besteak beste, ingurumenekoak, feministak, gazteak eta migrazioekin lotutakoak), arduradun politikoek, akademiak, komunikabideek, sektore pribatuak, eta, oro har, herritarrek. Topaketa horren bidez, proposamen zehatz eta koordinatuak osatu nahi ditugu, garapen ekitatibo eta jasangarria bultzatzeko, Euskadin eta hemendik harago.

Horretarako, jarraipena emango diogu *Futuro en común* ekimenaren esparruan Euskadin bultzatutako lanari; ekimen horren baitan, hain zuzen, gizarte zibileko askotariko 100 erakundek baino gehiagok (ingurumenekoak, feministak, sozialak, gazteak, lankidetzakoak, migrazioekin lotutakoak...) elkarrekin lan egin dute Euskadirentzat lortu nahi dugun etorkizuna irudikatzen (LORTU NAHI DUGUN ETORKIZUNA. [Gizarte zibilaren konpromisoak eta eskakizunak, euskal alderdi politikoei begira](#)).

Helburuak


1. **GJPK sustatzea:** Elkarrizketarako eta hausnarketarako espazio bat eskaintzea, hainbat eragilek (gizarte zibil antolatua, arduradun politikoak, akademia, komunikabideak, sektore pribatua eta herritarrek) aukera izan dezaten Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziaren (GJPK) inguruan eztabaidatzeko eta egin beharreko ahaleginak lerrokatzeko.
 2. **Eragile anitzeko parte-hartzea sustatzea:** Ekitaldiaren diseinuan eta garapenean askotariko erakunde eta eragile sozialak inplikatzeko, ordezkaritzan aniztasuna dagoela eta prozesuan ikuspegi ugari aintzat hartzen direla ziurtatzeko.
 3. **Dokumentu estrategiko bat osatzea:** Ekitaldiaren emaitza gisa, dokumentu bat osatu eta argitaratzea, 2030 Agendaren azken txanparako gida gisa balioko duena, eta Euskadiko politiken koherentziarako gidalerroak eta gomendioak ezarriko dituena.
 4. **Sektoreen arteko lankidetzaren indartzea:** Hainbat sektoreen arteko lankidetzaren sustatzea (ingurumenekoak, feministak, sozialak, gazteak, lankidetzakoak, migrazioekin lotutakoak...), garapen jasangarriarekin lotuta Euskadin ditugun erronkei elkarrekin heltzeko.
 5. **Gizartea sentsibilizatzea eta mobilizatzea:** Gizarte zibilaren sentsibilizazioa eta mobilizazioa areagotzea politiken koherentziak duen garrantziari buruz eta horrek Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko duen eraginari buruz.
- 



Azken batean, eragile horiek guztiak hausnarketa- eta ekintza-kolektiboko prozesu baten parte bihurtu nahi dira, Euskadin garapen jasangarrirako politiken koherentzia sustatzeko, sektoreen arteko eta eragile anitzeko lankidetzak indartzeko, eta 2030 Agendaren azken txanparako gida izango den dokumentu estrategiko bat osatzeko.

Topaketatik sortutako dokumentua

Topaketaren emaitza nagusia 2030 Agendaren arloan aldaketa eraldatzaile bat sustatzeko dokumentu estrategiko bat osatzea izango da. Dokumentu horrek hiru arlo nagusitan bilduko ditu proposamenak, gidalerroak eta konpromisoak:

1. **Administrazio publikoarentzako eskariak:** Garapen jasangarrirako politiken koherentzia indartzeko ekintza zehatzak.
 2. **Enpresa-sektorearen erantzukizunak:** Arlo korporatiboan praktika jasangarriak eta etikoak sustatzeko estrategiak.
 3. **Hirugarren sektorearen eta herritarren ekintzak:** Barne-koherentzia, mobilizazioa eta gizarte-sentsibilizazioa indartzeko neurriak.
- 

Behin-behineko egitaraua

09:00-09:15 Ongietorria eta izen-ematea

HASIERA

09:15-09:30 **Irekiera instituzionala**

- UN Etxea
- Euskadiko GGKEen koordinakundea
- AECID
- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia

ULERTU

09:30-10:15 **Zubiak eraikiz: Politiken koherentzia aldaketaren eragile**
Futuro en Común

HAUSNARTU

10:15-10:30 **Mikrojarduera**

EZAGUTU

10:30-11:30 **Elkarrizketa-mahaia: Sektorekako ikuspegiak**

- Administrazio publikoa: Silvia Carballo, Donostiako Udala
- Enpresa-sektorea: Jone Nolte, Asle A
- Hirugarren sektore soziala: Elena Blanco, Sareen Sarea
- Hezkuntza: Nélida Zaitegi, pedagogo aditua

11:30-12:00 **Kaferako atsedena**

ESPERIENTZIAK PARTEKATU

12:00-13:00 Aurkezpenak eta elkarrizketa (3 aukeran)

- Enpresak eta giza eskubideak (Mugarik Gabeko Ekonomialariak)
- Unibertsitate Kritikoa Sarea
- Erosketa publiko berdea (IHOBE)
- Gatazkarik gabeko teknologia (Alboan)
- Koherentzia feminista (Mugarik Gabe)
- Ekonomia Alternatibo eta Solidarioa (REAS)

13:00-14:30 **HAUSNARKETA KOLEKTIBOA**

Taldekako lana

14:30-14:45 **BUKAERA**

Asier Aranbarri, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren zuzendaria

14:45-15:30 **Hizketan jarraituko dugu pintxo bat janez!**

Izena emateko inprimakia

<https://forms.gle/C1wzyNkcb41ckcPCg>

Hizkuntza

Aurkezpenak gaztelaniaz egingo dira, programan bestelakorik adierazi ezean. Hala ere, euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzeko eskubidea bermatuko zaie hizlariei eta ikus-entzuleei.

Antolatzaileak:



Honako hauek diruz lagunduta:

